

Sin./Fdo.: JAVIER MONGE GOMEZ 2024-10-04
Arduradunaren absentsziagatik / Por ausencia de responsable:
EHIZA FAUNA ETA ARRANTZA KUDEATZEKO ZERBITZUA
SERVICIO DE FAUNA CINEGÉTICA Y PESCA

Sin./Fdo.: ROBERTO CAÑON GOROSTIZA 2024-10-05
NATURAGUNEAK KUD.ETA ZZ.OO.RRAK BIDER.ZUZENDARiorde Nagusia
SUBDIRECTOR/A GENERAL GESTIÓN DE ESPACIOS NATURALES Y SS.GG.

ERABAKIA, 2024. ekitaldirako Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari 8.000 €ko dirulaguntza izenduna emateari eta dirulaguntza hori aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena egitea baimentzen duena

Hitzarmen honen bidez Bizkaiko Foru Aldundiak 2024rako gehienez ere bere gain hartutako betebeharrak 8.000 eurokoak izango dira; betebeharrak 2024ko aurrekontu orokorren 419.105 programaren, 451.00 kontzeptuaren kargura, 0206 organikoa, 2017/0075 aurrekontu proiektuan zainpeturik daude.

Ehiza eta Arrantza atalburuak dirulaguntza hau ematearen aldeko txostena egin dute, bai eta erantsitako hitzarmenaren bidez arautzen diren baldintzen aldekoa ere.

Dirulaguntza hori Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikularekin erlacionatutako 20.2a) artikulua ezarritakoa dela bide ematen da.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17 eta 66. artikuluek, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikularekin erlacionatutako 20.2a) artikulua eta Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 10eko 34/2010 Foru Dekretuko 12 eta 50. artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Hitzarmen hau izenpetzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

ACUERDO por el que se concede una subvención nominativa de 8.000 euros a la Federación Bizkaína de Pesca y Casting y se autoriza la celebración del convenio por el que se establecen las condiciones para la aplicación de la citada subvención durante el ejercicio 2024.

Los presupuestos del año 2024 del Departamento de Medio Natural y Agricultura contemplan una partida nominativa a favor de la Federación Bizkaína de Pesca y Casting por importe de 8.000 € en el concepto 451.00, Programa 419.105, Orgánico 0206, Proyecto presupuestario 2017/0075.

La jefatura de sección de Caza y Pesca Continental informa favorablemente al otorgamiento de esta subvención y las condiciones que se regulan mediante el Convenio anexo.

Se concede dicha subvención en virtud de lo dispuesto en el artículo 20.2.a) relacionado con el 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En su virtud, en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, el artículo 20.2 a) relacionado con el 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo y los art. 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, la competencia para autorizar la firma de este Convenio corresponde a la Diputación Foral





Horregatik, sinatzen duenak hurrengo onartzeko ohorea du, Bizkaiko Foru Aldundian aurkez dadin.

Por todo lo expuesto, el que suscribe, tiene el honor de someter a la consideración de V.I., para su elevación a la Diputación Foral, el siguiente

AKORDIOA:

LEHENA. Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari (G-48.242.168) 8.000 €-ko dirulaguntza ematea eta erantsita doan hitzarmena egiteko baimena ematea, hain zuzen aipaturiko diru-laguntza aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena, 2024. urterako aurrekontuaren 419.105 programa, 451.00 kontzeptua, 0206 organikoa eta 2017/0075 aurrekontu proiektuaren kargura, hori guztia Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra onetsi duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikularekin erlazionatutako 9 eta 20.2a) artikuluetan eta Diru-laguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 10eko 34/2010 Foru Dekretuko 12 eta 50. artikuluetan ezarritakoa dela bide.

BIGARRENA. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatu andreari ahalmena ematea Hitzarmena eta erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren gainerako ekintzak burutzeko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari jakinaraztea, harekin sinatu baita hitzarmena.

ACUERDO:

PRIMERO. Otorgar una subvención de 8.000 € a la Federación Bizkaina de Pesca y Casting (G-48.242.168), así como autorizar la celebración del convenio anexo por el que se establecen las condiciones para la aplicación de la mencionada subvención, con cargo al concepto 451.00 del Programa 419.105, Orgánico 0206, Proyecto Presupuestario 2017/0075 del presupuesto de 2024, todo ello en virtud de los artículos 9 y 20.2 a) en relación con el 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y los art. 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la mencionada Norma Foral.

SEGUNDO. Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura para la firma del referido Convenio y demás actos que se precisen para la ejecución del presente Acuerdo.

TERCERO. Comunicar el presente Acuerdo a la Federación Bizkaina de Pesca y Casting (G-48.242.168), con la que se suscribe el Convenio.

Ehiza eta Ibaietako Arrantza Ataleko Burua / La Jefa de Sección de Caza y Pesca Continental. JAVIER MONGE GOMEZ

Naturguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorretako Azpizuzendari Orokorra / El Subdirector General de Servicios Generales y Gestión de Espacios Naturales. ROBERTO CAÑÓN GOROSTIZA

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Diputatua / La Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura. ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA





BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO ZAINTEKO SAILAREN BITARTEZ, ETA BIZKAIKO ARRANTZA ETA KASTING FEDERAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA, 2024. EKITALDIAN ARRANTZA - JARDUERAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA, SUSTAPENA, LANKIDETZA, AHOLKULARITZA ETA ZABALKUNDEA BULTZATZEKO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN.

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA Y FEDERACIÓN BIZKAINA DE PESCA Y CASTING EN MATERIA DE FORMACIÓN, PROMOCIÓN, COOPERACIÓN, ASESORAMIENTO Y DIVULGACIÓN DE LA ACTIVIDAD DE LA PESCA EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DURANTE EL EJERCICIO 2024.

BILDURDIRA

REUNIDOS

Alde batetik, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, eta bere izen eta eskuordetzan Arantzazu Atucha Lejarreta and., Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatua dena; ahalmena du honako hitzarmen hau sinatzeko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2024ko XXXXXren XX(e)(a)n hartu duen erabakiaren bidez.

De una parte, la Diputación Foral de Bizkaia, y en su nombre y representación, Dña. Arantzazu Atucha Lejarreta, en calidad de Ilma. Sra. Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura, quedando facultada para suscribir el presente convenio, por acuerdo de la Diputación Foral en su reunión del Consejo de Gobierno celebrado el día XX de XXXXXX de 2024.

Eta bestetik, Ritxard Guimera Jobajuria j., Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren (aurrerantzean, onuraduna) izen eta eskuordetzan jarduten duena (G-48.242.168 zenbakidun I.F.K). Horren egoitza Martin Barúa Picaza, 27, 5 - 48003 BILBO n dago.

De otra parte, D. Ritxard Guimera Jobajuria, en nombre y representación de la Federación Bizkaina de Pesca y Casting (en adelante, la beneficiaria), con C.I.F.: G-48.242.168 con domicilio en la calle Martin Barúa Picaza, 27, 5ª - 48003 Bilbao.

Alderdiek dagokien erakundearen izenean eta ordezkari gisa jarduten dute eta Hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri.

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio y,

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN

LEHENENGOA: Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 5eko 53/1985 Dekretuak xedatzen duela Bizkaiko Lurralde Historikoari transferitu zaizkiola Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumenak, besteak beste, ehiza eta arrain-ustiapenaren araubideari dagozkionak eta ur publiko kontinentalen, haien berezko ibilgu, ibaiertz eta zortasunen poliziari dagozkionak.

PRIMERO: Que el Decreto del Gobierno Vasco 53/1985, de 5 de marzo, dispone que quedan transferidas al Territorio Histórico de Bizkaia las competencias de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre otras, en materia de régimen de aprovechamiento de la riqueza piscícola continental y cinegética y Policía de las aguas públicas continentales y sus cauces naturales, riberas y servidumbres.

BIGARRENA: Azken urteotan, Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren arteko lankidetzaren iraunkorra eta etengabea izan dela eta,

SEGUNDO: Que durante los últimos años la colaboración entre la Federación Bizkaina de Pesca y Casting y el Departamento de Medio Natural y Agricultura se ha mantenido de forma





hartu-eman horretan, arrantzaren alderdi jakin batzuk jorratu direla, betiere aipatutako federazioari datzekion funtzioen eremuan: prestakuntza, lankidetzazabalkunde-lanetan, arrantza jardueraren jarraipena eta aholkularitza.

Horregatik, federazioak egun gauzatzen dituen jarduerak interesekoak dira Sailarentzat eta, ildo horretan, Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioarekiko lankidetzagaratzea mesedegarria izan daiteke, arestian azaldu diren jardueren jitea dela eta, honako lankidetzahitzarmen honetan ezarritako baldintzetan, jardueren helburuen gizarte-izaera ikusita.

HIRUGARRENA: Hitzarmen hau sinatzea egintza berezia da; Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioa erakunde pribatua da, irabazteko asmorik gabekoa, eta nortasun juridikoa dauka eta, legez esleituta dauzkan eginkizunez gain, administrazio-izaerako funtzio publikoak izapidetzen ditu eta hitzarmenak izenpetu ditzake herri-administrazio guztiekin bere helburuak betetzeko, hari aplikagarri zaion kirol-legeriaren arabera. Horren haritik, esan behar da arloko erakunde eskumenduna dela Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan.

LAUGARRENA: Bizkaiko Lurralde Historikoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29eko 10/2023 Foru Aginduaren bidez 8.000 €-ko dirulaguntza izenduna ezarri zen Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren alde (kontzeptua: 451.00; programa: 419.105; organikoa: 0206; proiektua: 2017/0075).

BOSGARRENA: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2.a) artikuluan ezartzen duena dela bide (26.1 artikulurekin lotuta), hitzarmen hau sinatzea bidezkoa da dirulaguntza horren aplikazioa arautu behar duten baldintzak ezarri ahal izateko.

KLAUSULAK

LEHENA: XEDEA

Hitzarmen honen xedea Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari 2024ko ekitaldian 8.000

constante abarcando determinados aspectos relacionados con la pesca y en el ámbito de las funciones propias de dicha Federación: formación, colaboración en aspectos divulgativos, seguimiento de la actividad y asesoramiento.

Por ello, se considera que las actividades realizadas por la Federación son de interés para el Departamento y que puede resultar ventajoso establecer una colaboración con la Federación Bizkaína de Pesca y Casting por la naturaleza de las actividades indicadas, en los términos que se establecen en este Convenio, dado el marcado carácter social de sus objetivos.

TERCERO: La firma de este convenio tiene carácter singular, siendo la Federación Bizkaína de Pesca y Casting una entidad privada, sin ánimo de lucro y con personalidad jurídica, que ejerce, además de sus propias atribuciones, funciones públicas de carácter administrativo, pudiendo suscribir convenios con las distintas administraciones públicas para la consecución de sus objetivos según la legislación deportiva que les es de aplicación siendo la entidad competente en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia

CUARTO: Que mediante Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024, se establece una partida nominativa a favor de la Federación Bizkaína de Pesca y Casting por importe de 8.000 €, en el concepto 451.00 del Programa 419.105, Orgánico 0206, Proyecto presupuestario 2017/0075.

QUINTO: Que en virtud de lo dispuesto en el artículo 20.2.a) relacionado con el artículo 26.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, procede la firma del presente Convenio para el establecimiento de las condiciones que han de regular la aplicación de la mencionada subvención.

CLÁUSULAS

PRIMERA: OBJETO

El presente Convenio tiene por objeto la concesión de la subvención nominativa por





euroko dirulaguntza izenduna ematea da. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak (Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak) eta Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak hitzartu zuten dirulaguntza Bizkaiko Lurralde Historikoan 2024. urtean prestakuntza, sustapena, kooperazioa, aholkularitza eta arrantzaren zabaltzea bezalako arloetako jarduerak bideratuko dela; jarduera horiek guztiak Federazioak 2024ko ekainaren 24an aurkeztu duen memorian eta hitzarmen honi itsatsi zaion eranskinean zehaztuta daude.

BIGARRENA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISOAK

Bizkaiko Foru Aldundiak, Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailaren bidez, hitzarmen honetan jasotako ekintzak, haien kostua 9.420,00€-koa izanda, gehienez 8.000 euroekin finantzatzeko konpromisoa hartzen du hitzarmen honen barruan, 451.00/419105/0206 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: BIZKAIKO ARRANTZA ETA KASTING FEDERAZIOAREN KONPROMISOAK

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak honako konpromiso hauek hartuko ditu bere gain, betiere, onuradunak aurkeztu duen eskaerari erantsi zaion memorian azaltzen diren zehaztapen eta garapenarekin bat etorri.

1- Prestakuntza-jarduerak eta lankidetzak.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak prestakuntza-jarduerak egingo ditu, arrantzaleen kolektiboan pertsona gehiago sartu ahal izateko.

2- Komunikazioa eta ekitaldiak.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak arrantza-jarduera sustatuko du. Horretarako, hainbat baliabide erabiliko ditu komunikazio-bideen eta plataforma digitalen bitartez. Horrez gainera, arrantzaleen kolektiboarentzako ekitaldiak antolatuko ditu eta haietan parte hartuko du.

3- Finantzaketa propioa.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak baliabide berekiak eta beste sarrera batzuk erabiliz finantzatuko ditu honako hitzarmen honetan jaso eta gauzatzeko zehaztutakoak.

importe de 8.000 euros a la Federación Bizkaína de Pesca y Casting en el ejercicio 2024. Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaía (Departamento de Medio Natural y Agricultura) y la Federación Bizkaína de Pesca y Casting convenían que la subvención se destinará a financiar el desarrollo de las actividades en materia de formación, promoción, cooperación, asesoramiento y divulgación de la actividad de la pesca en el Territorio Histórico de Bizkaía para el año 2024 que se concretan en la memoria presentada por la Federación el 24 de junio de 2024 y que se adjunta al presente convenio.

SEGUNDA: COMPROMISOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

La Diputación Foral de Bizkaía, a través del Departamento de Medio Natural y Agricultura, en el marco del presente Convenio, asume el compromiso de financiar en la cantidad máxima de 8.000 € con cargo a la partida 451.00/419105/0206 las acciones comprendidas en el presente convenio, cuyo coste estimado asciende a la cantidad de 9.420,00€.

TERCERA: COMPROMISOS DE LA FEDERACIÓN BIZKAÍNA DE PESCA Y CASTING

La Federación Bizkaína de Pesca y Casting en el marco del presente Convenio asumirá los siguientes compromisos, cuyo detalle y desarrollo se describen en la memoria que acompaña a la solicitud presentada por la beneficiaria:

1- Actividades de formación y colaboraciones.

La Federación Bizkaína de Pesca y Casting organizará cursos de formación al objeto de facilitar nuevas incorporaciones al colectivo de personas pescadoras.

2- Comunicación y eventos.

La Federación Bizkaína de Pesca y Casting difundirá la actividad de la pesca. Para ello emplearán diferentes recursos, tanto a través de medios de comunicación, plataformas digitales, además de organizar y participar en actos destinados al colectivo de pescadoras y pescadores.

3- Financiación propia.

La Federación Bizkaína de Pesca y Casting financiará con recursos propios y otros ingresos al menos el 15% del importe correspondiente a las actividades ejecutadas y justificadas encuadradas





jarduerak, gutxienez, horien %15.

Federazioak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 679/2016 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta osatu eta garatzen duten gainerako araudietan hitzarmen honi jarraiki jaso eta aztertu diren izaera horietako datuen harira ezartzen dena bete beharko du.

Lengoiaren erabilera ez sexista egin beharko da eta lengoaien eta irudiaren erabileran ez da bereizkeriako elementurik egongo eta estatistika guztietan sexuari buruzko datuak kasuan kasuko pertsonen buruzkoak izango dira.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, erakundeak honela egin beharko ditu diruz lagundutako ekintzak:

A) Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko du lanpostuen sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzun kidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

B) Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezzen zaindu beharko du, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzun kidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatu behar dute idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

Bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren barruan egindako agerpen publiko

en el presente convenio.

La Federación deberá cumplir con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales y demás normativa que la complementa o desarrolla, en relación con los datos de esta naturaleza objeto de recepción y tratamiento en virtud de este Convenio.

En el desarrollo de las presentes actividades se deberá hacer un uso no sexista del lenguaje, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen, debiendo desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere

En materia de igualdad entre mujeres y hombres la entidad deberá realizar las acciones subvencionadas de la siguiente manera:

A) La Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

B) La Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

En materia de uso de las dos lenguas oficiales, la Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad





orotan. Era berean, erakunde onuradunak bi hizkuntza ofizialak erabili beharko ditu herritarrei beren jardueraren berri emateko egiten dituzten liburuxketan, karteletan edo bestelakoetan.

LAUGARRENA.- FINANTZAKETA, ZENBATEKOA ETA AURREKONTU KREDITUA

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak aurkeztu duen proiektuan ezarri denarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartu du Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari 8.000 euroko ekarpen ekonomiko egiteko 2024ko ekitaldian. Kopuru hori 451.00 aurrekontu partidaren kargura ordainduko da (419.105 programa, 0206 organikoa eta 2017/0075 proiektua).

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako finantzaketa gehigarririk emango eta, beraz, arestian aipatu den zenbateko hori gaindituz Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak egingo dituen jarduera guztiek sortuko dituzten gastuak kanpoko beste funtsa batzuen finantzaketa eduki beharko dute.

Entitate onuradunak hirugarren klausulan ezarritako konpromisoak betetzeko erabili behar du diru laguntzaren zenbateko osoa.

BOSGARRENA.- APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honen xede den diru-laguntza emateko honako hauek aplikatu dira: Bizkaiko Foru Administrazioaren diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 9. eta 20.2.a) artikulua (26. artikuluekin lotuta); aurreko foru arau hori garatzen duen Diru-laguntzen Araudia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 12. eta 50. artikulua.

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Hitzarmen honi dagokionez aginduzkoak izango dira, bertan xedatutakoaz gainera, zuzenean edo analogiaz aplikagarriak izan daitezkeen administrazioko zuzenbideko arauak.

Diru-laguntza emateko araubide juridikoa hauxe izango da:

a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa,

subvencionada. Además, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

CUARTA.- FINANCIACIÓN, CUANTÍA Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO

El compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia se concreta en la aportación económica a la Federación Bizkaína de Pesca y Casting de 8.000 euros en el ejercicio 2024. Dicha cantidad se financiará con cargo a la partida presupuestaria 451.00, Programa 419.105, orgánico 0206 y Proyecto presupuestario 2017/0075.

La Diputación Foral de Bizkaia no aportará ninguna financiación adicional, por lo que todos los gastos que se devenguen por la realización de las actividades de la Federación Bizkaína de Pesca y Casting que superen la mencionada cuantía, tendrán que contar con financiación proveniente de otros fondos externos.

La entidad beneficiaria deberá destinar la totalidad de la cuantía subvencionada al cumplimiento de los compromisos suscritos en la Cláusula Tercera.

QUINTA.- RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE

La subvención objeto de este Convenio se otorga en virtud de los artículos 9 y 20.2.a), en relación con el artículo 26, todos de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y los artículos 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la mencionada Norma Foral.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se registrará, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo, que bien directamente o por analogía pudieran resultar de aplicación.

El régimen jurídico que regula la concesión de la subvención será:

a) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por





Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta hura garatzen duten xedapenak.

b) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Diru-laguntzen Araudia onesten duena.

c) Halaber, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuko da, kontu izanik erakunde pribatu hauei aplikatuko zaiela hurrengo: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

d) Hitzarmena bera eta administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

SEIGARRENA.- BATERAEZINTASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN

Hitzarmen honetan jasotako zenbatekoekin batera beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso ahal izango dira, xede berarekin, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emanda, berdin dio nongo erakundeak diren: autonomiakoak, naziokoak, Europako Batasunekoak edo nazioartekoak.

Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikulua ezarritakoari jarraiki, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan, inola ere, diru-laguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA BERMEEN ARAUBIDEA

Hitzarmena sinatuko den unean ordainketa lehena eta bakarra egingo da; horren munta 8.000 € izango da. Ez zaio onuradunari bermerik betetzeko eskatu, hitzarmen honi lotutako betebeharrak urratzeko arriskurik ez baita

la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y sus disposiciones de desarrollo.

b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Subvenciones.

c) Asimismo, será de aplicación la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, teniendo en cuenta especialmente aquellas entidades que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

d) El propio Convenio y las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

SEXTA.- INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

Las cantidades contempladas en este convenio serán compatibles con otros ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, autonómicos, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Conforme al artículo 18.3 Norma Foral de Subvenciones, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

SÉPTIMA.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN Y RÉGIMEN DE GARANTÍAS

Se realizará un primer y único pago a la firma del convenio por importe de 8.000 €. No se exige la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud





antzematen; era berean, ez da onuradunaren baliabiderik zehaztu diru-laguntzen balizko itzulketarik egin beharko balu, ordainketak gastuak justifikatu ostean egingo direlako.

ZORTZIGARRENA.- BURUTZEKO EPEA

1.- Dirulaguntzaren xede den jarduera 2024ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da.

2.- Dirulaguntza emango duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, aldez aurretik interesdunarekin entzunaldia izan eta funtsak aplikatu aurretik, laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

BEDERATZIGARRENA.- JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Erakunde onuradunak hurrengo urteko otsailaren 28 edo indarreko hurrengo eguna baino lehen justifikatu beharko du dirulaguntza emateko xedea bete duela eta jasotako funtsak aplikatu direla. Horretarako, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, eta, bertan, honako jasoko da:

1.- Hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria; han, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adieraziko dira. Memoria hori paperean aurkeztuko da eta aldatu ezin den fitxategi digitalean (.pdf edo antzekoa). Memoria horretan berariaz jasoko dira berdintasun-arloko hirugarren klausulan ezarritako betebeharrak betetzeko gauzatutako ekintzak.

2.- Egindako jardueraren kostuaren berri ematen duen justifikazioko memoria ekonomikoa. Han, diruz lagundutako jarduerari esleitutako sarreraren eta gastuen egoera jasoko da. Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen egoerorria osatzen duten partida guztiek martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan azaltzen den edukia izango dute.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Hitzarmen honen arabera diru-

de este convenio, ni se especifican los medios de que dispone para efectuar hipotéticas devoluciones de subvenciones toda vez que los pagos se realizarán una vez justificados los gastos.

OCTAVA.- PLAZO DE EJECUCIÓN

1.- La actividad objeto de la subvención se inicia el 1 de enero de 2024 y finalizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2024.

2.- El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

NOVENA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN

La justificación del cumplimiento de la finalidad por la que se concedió la subvención y la aplicación de los fondos percibidos por parte de la entidad beneficiaria, deberá efectuarse antes del 28 de febrero o inmediato hábil posterior del ejercicio siguiente, mediante la presentación de una cuenta justificativa que contendrá:

1.- Una memoria de actuación del cumplimiento de las condiciones impuestas, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. La entrega se hará en formato papel y en un documento en formato digital no modificable (pdf. o similar). En esta memoria se hará constar expresamente las acciones realizadas para el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la cláusula tercera en materia de igualdad.

2.- Una memoria económica justificativa del coste de la actividad realizada, que contendrá un estado de ingresos y gastos imputados a la actividad subvencionada. Cada una de las partidas que componen el estado de ingresos y gastos a la actividad subvencionada, se ajustarán al contenido previsto en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

La documentación económica aportada responderá a los siguientes requisitos:

a) El estado de ingresos y gastos imputados a





laguntzarako onartzen diren jarduerari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria (1. eranskina). Orri hori paperean aurkeztuko da eta, gainera, fitxategi digitala (Excel fitxategia) erantsiko zaio.

b) a) atalean adierazitako gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzari dagokionez, diruz lagundutako jardueraren gastuen edota inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa aipatuta, bai eta zenbatekoa, bidaltze-eguna eta, hala badagokio, ordainketa-eguna ere bai. Ematea paperezko formatuan egingo da eta horrekin batera euskarri digitaleko agiria aurkeztuko da (Excel fitxategia).

c) a) atalean aipatutako sarreraren egoera-orrian agertzen diren sarrerei dagokionez, jarduerari egotzitako sarreraren zerrenda sailkatua, kontzeptua, zenbatekoa eta kasu bakoitzean, hitzarmenaren arabera esleipena adierazita (ikusi 2. eranskina). Orri hori paperean aurkeztuko da eta, gainera, fitxategi digitala (Excel fitxategia) erantsiko zaio.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko du eta, txosten horretan, hitzarmen honen barruan gauzatutako jardura guztiak eta lortutako emaitzak azaldu beharko ditu.

Ez da fakturarik onartuko, bertan egindako lanak eta bakoitzaren prezio unitarioa zehazten ez bada.

Kontu justifikatzailearekin batera Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak honako hitzarmen honen garapenean sortuko den material guztiaren ale bat eman beharko du.

HAMARGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIO EGOKIA BERMATZEKO BERARIAZKO KONTABILITATE-ERREGISTROAK

1.- Diruz lagundutako programa edo jarduerari dagokionez, Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak kontabilitate berezia egin beharko du, bai kontabilitate ofizialaren barruan berariazko kontuen bidez, bai xede horrez irekitako erregistroen bitartez. Justifikazio-kontuaren euskarria izango dira.

2.- Kontu edo erregistro horietan gastuen egoera

las actividades objeto de subvención recogidas en el presente convenio de acuerdo al anexo 1. La entrega se hará en formato papel y se acompañará de un documento en formato digital (fichero Excel).

b) Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, una relación clasificada de los gastos y/o inversiones de la actividad, con identificación del acreedor o la acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago (ver anexo 3). La entrega se hará en formato papel y se acompañará de un documento en formato digital (fichero Excel).

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado a) anterior, una relación clasificada de los ingresos de la actividad, con descripción del concepto, el importe, y la indicación en cada caso, de la asignación propuesta al convenio (ver anexo 2). La entrega se hará en formato papel y se acompañará de un documento en formato digital (fichero Excel).

La Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá presentar una cuenta justificativa final en la que se refleje la totalidad de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos sujetos a este convenio.

No se admitirá ninguna factura si en la misma no se desglosan los trabajos realizados ni el precio unitario de cada uno de ellos.

Junto con la cuenta justificativa la Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá entregar un ejemplar de todo material que se genere en el desarrollo del presente convenio

DÉCIMA.- REGISTROS CONTABLES ESPECÍFICOS PARA GARANTIZAR LA ADECUADA JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

1.- La Federación Bizkaína de Pesca y Casting deberá llevar una contabilidad separada del programa o actividad subvencionada, bien mediante cuentas específicas dentro de su contabilidad oficial o bien mediante registro abiertos al efecto, que serán soporte de la cuenta justificativa.

2.- En dichas cuentas o registros se deberán





osaten duen sail bakoitzaren kasuan, banan-banan, fakturak edo gainerako gastu frogagiriak azalduko dira eta hartzekoduna nahiz dokumentua identifikatuko dira, baita zenbatekoa BEZ eta dirulaguntzarik jaso ezin dezaketen gainerako zergak kanpo, igorpen-data eta ordaintze-data ere.

3.- Era berean, diruz lagundutako programari edo jarduerari aplikatuko zaizkion bitartekoak jasotzen dituen diru-sarreraren sail bakoitzean banan-banan fakturak eta diru-sarreraren frogagiriak azalduko dira, eta zorduna, zenbatekoa eta data identifikatuko dira.

reflejar para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una por una, las facturas y demás justificantes de gasto con identificación del acreedor y del documento, su importe con separación del IVA y demás impuestos que no sean subvencionables, la fecha de emisión y fecha de pago

3.- Igualmente, cada una de las partidas de ingreso que recogen los recursos aplicables al programa o actividad subvencionada, deberán reflejar una por una las facturas y demás documentos justificativos de ingreso con identificación del deudor, importe y fecha.

HAMAIKAGARRENA.-AZPIKONTRATAZIOA

1.- Hitzarmen honen ondorioetarako, azpikontratatzeko delatutako diru-laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak jarduera oso-osorik edo zati batean hirugarrenekin egitea hitzartzen duenean.

2.- Erakunde onuradunak osoz edo zati batean azpikontratatu dezake diruz lagundutako jarduera, honakoak betetzen baditu: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 53. artikuluan adieraziko eskakizun eta debekuak.

3.- Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioari dagokionez, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan xedatutakoa beteko du federazioak, eta aintzat hartu beharko du ezin izango duela azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren guztizko zenbatekoaren %50etik gora.

5.- Foru Administrazioak, preskripzio-denboraldiaren barruan, azpikontratutako jardueren kostua eta merkatuko balioa egiazta ditzake, 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, 5/2005 Foru Arauko, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen lege-araudi orokorra arautzen duena, garatzeko diru-laguntzen araudia onartzeari buruzkoak, 72. artikuluan xedatutakoarekin bat.

UNDÉCIMA.- SUBCONTRATACIÓN

1.- A los efectos de este Convenio, se entiende que se produce subcontratación cuando la entidad beneficiaria de la subvención concierta con terceros la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención.

2.- La entidad beneficiaria podrá subcontratar total o parcialmente, la actividad subvencionada, de acuerdo con los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo y el artículo 53 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010 de 23 de marzo.

3.- En lo relativo a la subcontratación de las actividades subvencionadas estará a lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, teniendo en cuenta que no podrá subcontratar un porcentaje superior al 50% del importe de la actividad subvencionada.

4.- La Administración Foral podrá comprobar, dentro del periodo de prescripción, el coste así como el valor de mercado de las actividades subcontratadas de conformidad con lo establecido en el artículo 72 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

HAMABIGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK

DUODÉCIMA.- OBLIGACIONES TRIBUTARIAS Y CON LA SEGURIDAD SOCIAL





Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, laguntza emateko ebazpen proposamena ezarri baino lehen.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) eguneko epealdia emango zaio, bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio, hori egin ezean, Aldundiaren ekarpena jasotzeko eskubidea kenduko zaiola, administrazio-ebazpen baten bitartez.

Diru-laguntza ez da ordainduko, eskaera izapidetu bitartean eskatzaileak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo zorduna bada diru-laguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen baten bidez.

Horrez gain, onuradunei laguntza horiek eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek eman dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen inguruan hasten diren dirua itzultzeko prozedurak edo zehapen prozedurak amaituta egotea.

HAMAHIRUGARRENA.- PROZEDURA AGINTZEKO ETA IZAPIDETZEKO ORGANOSKUDUNA

Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua izango da prozedura kudeatzen duen organoa. Hark ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak, oinarri hartu beharreko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko. Izan ere, datu horiek ezinbestekoak izango dira hitzarmen honen xede den diru-laguntza aitortzeko eta justifikatzeko, bai eta ebazpena eman behar duen organo eskudunari ebazpen-proposamena egiteko.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Natura-guneak kudeatzeko eta ZZ.OO. bideratzeko Zuzendariorde Nagusiaren Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo dituzte Administrazioak dituen datuak direla-eta, datuok beharrezkoak direnean laguntzen izapidetze administratiborako, betiere diruz lagundutako erakundea berariaz aurka ez

La beneficiaria deberá acreditar, hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de la seguridad social en el momento de otorgamiento y del pago del importe de la solicitud.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la aportación económica foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

No se materializaría el pago de la subvención si a la fecha de su tramitación no se está al corriente en el cumplimiento de las citadas obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudora por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones.

Asimismo, la concesión y, en su caso el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

DECIMO TERCERA.- ÓRGANO COMPETENTE PARA LA ORDENACIÓN E INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO.

El Organismo gestor del procedimiento será el Servicio de Fauna Cinegética y Pesca, el cual realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la concesión y justificación de la subvención objeto de este convenio y su propuesta de resolución al Órgano competente para resolver.

El Servicio de Fauna Cinegética y Pesca de la Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y SS.GG. del Departamento de Medio Natural y Agricultura, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, a través de los servicios de interoperabilidad expuestos, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos requeridos para la tramitación administrativa de esta ayuda que obren en poder





badago. Horretarako, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa eta bestelako elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu, betiere Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 6.e) artikuluari lotuta, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik (Zortzigarren Xedapen gehigarria).

Espedientea izapidetu bitartean, instrukzio-organoak beharrezko datuak zehazteko eta egiaztatze behar adina informazio eta dokumentu gehigarri eskatu ahal izango ditu. Interesdunak izapide horiek betetzeko jardunik bideratu ezean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoari jarraituko zaio.

HAMALAU GARRENA.- EMANDAKO DIRULAGUNTZA EGIAZTATZEA

Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak honako hau egiaztatuko du:

- 1.- Burututako proiektuaren edo jardueraren gaineko azalpen-memoriaren edukia.

Memoria horretan, egindako jardueren alderdirik garrantzitsuenak jasoko dira.

- 2.- Erakundeak aurkeztutako memoria ekonomikoaren edukia, sarrerak eta gastuak zehaztuta. Halaber, egiaztatuko da fakturak edo merkataritza-trafiko juridikoan frogabaliokidea duten agiriak zuzenak direla eta diruz lagundutako jarduketari dagozkiola. Egiaztapen hori Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuaren txostenean jasoko da.

Txostena erakunde onuradunak dokumentazio hori aurkeztu ondoren egingo da, gehienez ere hura aurkezte denetik 4

de la Administración, siempre que no exista oposición expresa por parte de la entidad subvencionada.

Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Servicio de Fauna Cinegética y Pesca podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación, todo ello según los términos previsto del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común, en relación al artículo 6.e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos; así como a lo establecido en la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica de Protección de Datos (LO 3/2018).

Durante la instrucción del expediente el Órgano instructor podrá requerir cuanta información y documentos adicionales precise para determinar y comprobar los datos necesarios. En el supuesto de inactividad de la persona interesada en la cumplimentación de estos trámites, se estará a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas

DECIMOCUARTA.- COMPROBACIÓN DE LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA

Por parte del Servicio de Fauna Cinegética y Pesca se procederá a la comprobación de:

- 1- El contenido de la memoria explicativa del proyecto o actuación llevada a cabo.

En esta memoria se deberán recoger los aspectos más relevantes de las actuaciones realizadas.

- 2.- El contenido de la memoria económica detallada de ingresos y gastos presentada por la entidad. Asimismo se verificará que las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil son correctas y se corresponden con la actuación subvencionada. Esta comprobación se plasmará en un informe del Servicio de Fauna Cinegética y Pesca.

Este informe será realizado una vez que la entidad beneficiaria haya presentado dicha documentación y en un plazo máximo de 4





hilabeteko epean.

meses desde su presentación.

HAMABOSGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK

